




Irakaskuntza Publikoa Nafarroa

ESKOLA PUBLIKOA ALA BASAKERIA



**KA****KLASEKO
AHOTSA**LGTBIQ+
materialakIdazkaritza Feministaren
argitalpenakMateriales
LGTBIQ+Publicaciones
Idazkaritza Feminista**03****EDITORIALA****04****0-3**

Pausoz pauso, atzerapauso!

05**JANTOKIAK**30 años después, sin compromiso
con los comedores escolares**06****FORMAKUNTZA**Gainzama: formakuntza
instituzionala**08****PAI + ZERRENDEN
KUDEAKETA**Oposiciones y listas
de contratación**10****LAN OSASUNA**Bajak eta OPEak. Oposizio sistema
honek gaixotzen gaitu**12****EAE**Hezkuntza publikoko irakasleak:
mahai negoziatzailea**13****IDAZKARITZA FEMINISTA**

Zaintza lanen egunerokoa

14**LGTBIQ+**Porno eta pantailak.
Egunerokoan kontrolatuak ditugu,
online munduan abandonatuta**16****EILASTASUNA**

Proiektu berriak

18**MUGIMENDU SOZIALAK**Sindicatos y YALA NAFARROA
con PALESTINA lanzan
una recogida de fondos
en solidaridad con Gaza _
Palestinari elkartasuna
adierazteko ekarpen
ekonomikoaren eskaera _
Merezimenduen dekretuak
euskara «ingelesaren,
frantsesaren eta alemanaren
azpitik» utziko duela salatu
genuen 60tik gora eragilek**21****HITZ ETA LAPITZ****19****HAN-HEMENKA**Julia Fernandez Zabaleta. Pastoral.
Emakume aitzindariak _
¿El final de las estaciones?
Razones para la rebelión
de la ciencia y el decrecimiento _
Emari transfeministak haur
hezkuntzan. Profesionala,
pertsonala eta politikoa elkar
gurutzatuz

Escuela pública o barbarie

“No hay dinero”, es la excusa que esgrime el Departamento de Educación para no cumplir el Pacto para la mejora de la Educación Pública. También es la respuesta que dan cuando se solicitan medidas para **bajar los ratios** de manera lineal en todas las etapas, **recuperar el poder adquisitivo** que los gobiernos español y navarro nos han sustraído o **disminuir la sobrecarga laboral**.

La milonga de “no hay dinero” la sueltan sin despeñarse, mientras Navarra presume de practicar políticas “austericidas”, como ser la comunidad autónoma que más **ha reducido su deuda**. Deuda ilegítima, originada por el mal gobierno de UPN y PSN con peajes en la sombra, adelanto del dinero del TAV y muchas otras prácticas corruptas, para enriquecer a empresarios amigos y fondos buitres, que llevaron, entre otras cosas, a la desaparición de Caja Navarra.

Con el dinero que paga Navarra al estado, también se financia un **gasto militar** que aumenta cada año, con un incremento del 10% en 2023 o el máximo histórico en el número de policías y guardias civiles. Mientras tanto, el autoproclamado “gobierno más progresista de la Historia de España” mantiene vigente la **Ley Mordaza** para reprimir las protestas sociales con mayor impunidad.

La educación pública sufre **recortes** desde 2010 y se descapitaliza igual que otros servicios públicos como la sanidad o la atención a personas dependientes, para que el capitalismo neoliberal los pueda parasitar y depredar, y así acrecentar el beneficio empresarial. Un ejemplo sería la total **privatización de los comedores** escolares públicos recogida en un reciente decreto foral. Eso sí, todo convenientemente revestido de “greenwashing”.

Los escasos recursos se destinan a una Educación Pública tensionada que cada vez escolariza a más **alumnado vulnerable** desde el punto de vista socioeconómico y psicológico. Únicamente el 20% del

alumnado censado con necesidades de atención educativa recibe dicha atención específica y una proporción significativa del alumnado que antes percibía esa ayuda queda excluido en el reparto de recursos insuficientes.

El profesorado se encuentra frecuentemente impotente y aislado, a la hora de afrontar todas las problemáticas del alumnado, además de **sobrecargado** con tareas burocráticas y con responsabilidades para las que no tiene horas asignadas. De este modo, las y los docentes se enfrentan a mayores riesgos psicosociales, que junto a un sistema tóxico de gestión de listas de contratación, provocan más bajas médicas.

A modo de remedio se plantea la realización de actividades que en muchos casos se pueden calificar de aprendizaje basura. **El Diseño Universal del Aprendizaje (DUA)** consiste en eso precisamente: ante la falta de recursos de orientación, PT, AL o educación especial, o la ausencia de desdobles y apoyos, se rebaja el nivel académico al objeto de que los aprendizajes sean supuestamente accesibles a todo el alumnado; así, los recortes se convierten en “pedagogía progresista”. Para empeorarlo todo, arrasramos el PAI, que provoca una merma inadmisiblemente en el aprendizaje de las diferentes materias.

La dotación de recursos adecuada de la Escuela Pública es imprescindible para conseguir una sociedad cohesionada, justa y democrática. La descapitalización de los servicios públicos nos conduce a la barbarie. ■

Murrizketek eta inbertsio ezak ekarri dute baliabide urrien banaketa, eta hori D ereduko ikastetxe gehienetan nabaritu da. Gobernuarentzat ikasle euskaldunak “pribilegiatuak” omen dira. Noiz arte onartuko dute bazterkeria hori alderdi euskaltzaleek?



Pausoz pauso, atzerapauso!

2021

Nafar Gobernuak 0-3 Zerbitzua sortzen du Hezkuntza Departamentuan. Sektorean arituak eta adituak ez diren pertsonak izendatzen dituzte arduradun.

2022

- Nafarroako 0-3 hezitzaileen greba mugagabea deitzen da, ratioen jaitsiera eta soldaten igoera eskatuz. Soldataren igoera txikia lortu arren, ez da haur eskola guztietako langileei aplikatu eta lanen baldintzen duintze ezak jarraitzen du.
- Nafar Gobernuak haur eskolen kudeaketa zuzena behingoz bere gain hartzen du Hezkuntza Departamentuak. Bertako hezitzaileak "irakasle ez diren langile" izendatzen dituzte.

2023

Haur eskolen **doakotasunaren** berri ematen dute hurrengo ikasturterako. Ez dago plaza nahikorik guztiontzat eta familiak zerbitzu pribatuak erabiltzera behar izaten dituzte. Hortaz, ez da benetako doakotasuna.

2024

Bi urteko gelak haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan txertatuko dituztela aditzera ematen dute. Irizpide argirik gabe, familia batzuk kanpoan utziz eta **euskara eta gaztelaniaren arteko desoreka** linguistikoa areagotuz, euskararen kaltetan.

Momentu honetan, 20 urtetik gora daramatzagu Nafarroan 0-3 zerbitzu duin bat aldarrikatzen, eta egoera gutxi aldatu da, **hobekuntza eskasak ditugu**.

2023-2027ko akordio programatikoak zikloa duintzeko zirrikitu bat irekitzen zuela zirudien, kudeaketa amakomuna eta zikloaren homogeneizazioa aipatzen zituelarik. Egun, akordio horrekin norbait gogoratzen ote den galdetzen diogu geure buruari. **Ba al dago hori benetan gauzatzeko inolako asmorik akordioaren sinatzaileen aldetik?**

Nafarroan haur **eskolen kudeaketa** hamaika eredu aurkitzen ditugu: kudeaketa zuzena, kudeaketa ez zuzena, Nafar Gobernuak batzuk, enpresa pribatuen menpe beste batzuk, langileen kooperatiba txikiak... eta otsailean bi urteko gelak haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan ezartzeko pilotajearen asmoa heldu zaigu, kudeaketa hau are gehiago nahaspilatuz.

Arestian aipatu bezala, Departamentuak gobernuko haur eskolak bere gain hartu zituen, eta honek esperantza apur bat zabaldu zuen, bide baten hasiera izango zelakoan; behingoz, ziklo honi, legedian jasota dagoen **hezkuntza izaera** hori aitortuko zitzaiolakoan. Zoritxarrez, hor geratu zen dena, Departamentuak ez baititu bertako langileen lana, prestakuntza eta profesionaltasuna baloratzen, mezezi duten duintasuna aitortzeari uko eginez.

Hau nahikoa ez balitz, bai langileak eta baita haien ordezkari sindikalak ere bazterrean utzi gaituzte, **non negoziatorako eta gaiaren inguruan eztabaidatzeko fororik ez dugun**. Langileen ahotsa kontuan hartzeko negoziazio mahaia behar dugu lehenbailehen.

Azken urteetan gizartea **zaintza lanen garrantzia** aldarrikatzera ateratu da kalera eta gobernuak aldarri honekin bat egiten duela harro eta ozen esan du. Zurikeria horrek aldiz, "b" alde bat du: zaintza lan hauek, erabat feminizatuak direnak, ironikoki gutxi zaindutako lanak dira; haurrak eta haien familiak zenbaki huts bihurtzen dituzte eta hauekin esperimentatuz, tresna moduan erabiltzen dituzte beraien mesedetan: PAIren edo enpresa pribatuen alde, esaterako. Argi duguna da ez dela gizartearen mesedetan, behintzat. ■

Ya vale de proyectos piloto y de parches. Es momento de que el gobierno deje de presumir de boquilla de lo importantes que son las escuelas infantiles, que aborde el tema y se haga cargo de una vez. ¿Quién nos cuida a las que cuidamos?



30 años después, sin compromiso con los comedores escolares

Según la UNESCO, una buena nutrición infantil ayuda en el rendimiento académico y promueve la inclusión y la equidad tanto en educación como a nivel de salud integral. Además, los distintos planes europeos de control de las cadenas alimentarias obligan a las administraciones a asegurar las compras de forma organizada con criterios ambientales y sociales, dado que estos aspectos repercuten de forma directa en una alimentación saludable, en la mejora ambiental y en la lucha contra la despoblación rural.



Sin embargo, la alimentación dentro de los centros educativos de Navarra está relegada al voluntarismo de las familias y a empresas de catering adjudicatarias de los servicios que, como empresas privadas que son, tienen como objetivo la maximización del beneficio, a costa, en muchas ocasiones, de la reducción de la calidad de los productos y de la precarización de las condiciones laborales de las trabajadoras.

No cabe duda de que la parasitación de los intereses privados en los sistemas públicos puede provocar una pérdida de la calidad del servicio., Además el Gobierno de Navarra no dispone de una inspección eficaz para evaluar la calidad de los menús: solo hay una nutricionista en plantilla para todos los centros, los análisis de agrotóxicos y otros contaminantes son escasos, etc.

Con la llegada del nuevo Decreto Foral de comedores escolares tras casi 30 años de vigencia del anterior, y después de que desde STEILAS llevásemos años solicitando al Departamento de Educación que gestionase de forma directa los comedores escolares con criterios ecológicos y de proximidad, nos encontramos con que se produce en la nueva norma un retroceso con respecto al anterior al dejar regulada la gestión de las APyMAS e, incluso, al eliminar la actual información sobre la gestión pública y directa de los comedores escolares de las Escuelas Infantiles adscritas al Departamento de Educación que desde hace años viene prestando la administración navarra.

Lo que añade la norma es que el profesorado encargado del comedor deberá ejercer una doble labor: por una parte la gestión administrativa, y por otra, la tarea relativa a la coordinación pedagógica que supone incluir en la Programación General Anual el Plan Anual del Servicio de Comedor. Para ello, se pagará al personal encargado (profesorado en plantilla) a través de dietas pero no se dotará de un aumento de horas de contrato ni de horas de coordinación para el desarrollo de dichas funciones.

Con estos visos entendemos que, más allá de la extensión de las becas de comedor a los 175 días lectivos, el Departamento de Educación tiene un más que laxo compromiso con la gestión pública y directa de los comedores escolares de sus centros y que, de nuevo, se ha perdido una importante oportunidad para ponernos a la altura de Europa en el funcionamiento de los comedores como oferta pública dentro del desarrollo integral de la infancia, relegando de nuevo la organización y el funcionamiento de los mismos a las familias. ■

Jantoki-bekak 175 eskola egunetara hedatzeaz gain, Hezkuntza Departamentuak konpromiso eskasa du bere ikastetxeetako eskola jantokien kudeaketa publiko eta zuzenarekin. Berriz ere, aukera ezinhobea galdu da jantokien funtzionamenduan Europako herrialde batzuen mailan jartzeko, eskaintza publiko eginez eta haurren heziketa integralaren barruan txertatuz. Aldiz, berriz ere familien esku utzi du horien antolaketa eta funtzionamendua.

Gainzama:

formakuntza instituzionala



Irakasleek sufritzen duten gainzama etengabeko kezka da hezkuntza esparruan. Derrigorrezko formakuntza instituzionalak nabarmen areagotzen du gainzama hau, bereziki 35 orduko derrigortasuna ezartzen denean. Irakasleek, dagoeneko lanaldi gogor eta zorrotzean murgilduta daudenek, zaila dute prestakuntza programa zabal hauek darkarten zama gehigarriari aurre egitea.



35 orduko prestakuntza instituzionalaren erronka nagusietako bat **denbora** da. Irakasleek agenda estuak izan ohi dituzte, irakaskuntzan emandako orduetatik haratago doazen erantzukizunekin, hala nola, eskolak prestatzea, azterketak zuzentzea, ikasleei arreta ematea eta gurasoekin bilerak egitea. Horiez gain, prestakuntzako 35 ordu gehiago ezartzeak eragin negatiboa izan dezake irakaskuntzaren kalitatean; izan ere, irakasleek denbora gutxiago izango dute irakasgai eraginkorrek eta pertsonalizatuak prestatzeko.

Beste alderdi kritiko bat, hezkuntzako profesionalengan duen **eragin emozionala eta psikologikoa** da. Prestakuntza baldintzak betetzeko etengabeko presioak estresa, nekea eta motibazio falta ekar ditzake irakasleengan. Nahitaezko formakuntza horiek planifikatzeko malgutasunik ez izateak ere prestakuntzaren balioa mugatu dezake, irakasleen banakako interes zein behar profesionalak oinarritzat hartzen ez direnean batez ere.

Gainera, 35 orduko denbora baldintza ezartzeak formakuntzaren **kalitatea** kolokan jar dezake. Helburua ikaskuntza esanguratsu eta praktikoa sustatzea izan beharrean, kantitatean oinarritzen baita, eta ez hainbeste kalitatean.

Onuragarria izango litzateke **ikuspuntu malguago** eta pertsonalizatuagoak kontutan hartzea formakuntza instituzionaletarako. Irakasleei aukera ematea beren beharretara eta helburuetara egokitutako formakuntza aukeren artean hautatzeko, giro positiboago bat sustatze aldera. Malgutasun hau ez litzateke norbanakoari soilik zuzenduko, bai eta eskolako beharrei ere. Izan ere, eskolako beharrak anitzak izan ohi dira, eta maila zein etapa bakoitzak berezitasun desberdinak eskatzen ditu.

Horrez gain, **ordezkapenak** egiten ari diren irakasleei ere ez zaie jarraipenik bermatzen ez dutelako finkotasunik ikastetxeetan eta tokian tokiko formakuntzari ekiten diotelako, sarritan hasitako formakuntza bukatzeko aukera ukatuz. Zer esanik ez honek formakuntza osatu izanaren ziurtagiria lortzeko dakartzan zailtasunen inguruan.



Laburbilduz, derrigorrezko formakuntza instituzionaleko 35 ordu ezartzeak irakasleen gainzaman nabarmen eragin dezake. Funtsezkoa da ikuspegi malguagoak eta norbanakoen premietan oinarritutakoak kontuan hartzea.

Hau guztia kontuan hartuta, Hezkuntzako ordezkarri garen sindikatu guztion proposamena **urteko formakuntzaren derrigortasuna 20 ordura murriztea** da. Besteak beste, 20 ordu hauek ikasturteka banatu beharrean, bi ikasturtetan metatu daitezten ere eskatzen dugu, horrela kalitatezko formakuntza jarraiari zentzua emanez, irakasleentzat mesedegarria eta lagungarria izan dadin, ez lan karga edo kezka iturburu.

Eskaera honen aurrean, Hezkuntza Departamentuak ezezko borobil bat eman digu. Beti izaten da dirua aitzakia nagusia, baina kasu honetan, aldaketa hau aurrera eramateak ez luke suposatuko gastu ekonomikorik. **Zer egingo dute orduan irakasleok hainbeste urtez salatzen daramagun gainzama hori murrizteko?** ■

La sobrecarga que sufre el profesorado es una preocupación constante en el ámbito educativo. La formación institucional obligatoria incrementa notablemente esta sobrecarga, especialmente cuando se establece la obligatoriedad de 35 horas. El profesorado, inmerso ya en una dura y exigente jornada de trabajo, tiene dificultades para hacer frente a la carga añadida que suponen estos amplios programas de formación. A la falta de tiempo, agendas apretadas, preparación de material, corrección de tareas, atención al alumnado y familias, hay que añadir esas 35 horas de formación que impactan en la salud psicológica de los y las profesionales de la educación y perjudica directamente la calidad educativa. Por ello, **STEILAS** propone reducir a 20 horas la formación institucional, además de que haya más flexibilidad y la opción de acumular las horas durante dos cursos. Ante esta propuesta, el Departamento ha contestado con un rotundo no, sin ninguna otra propuesta sobre la mesa para reducir la sobrecarga laboral a la que se enfrenta el profesorado.



Oposiciones y listas de contratación

Este junio de 2024 tocan oposiciones en Educación, y todo el que esté en situación de interinidad sabe lo que esto supone: toca preparar programación, estudiar y prepararlas si quieres sobrevivir en las listas de contratación. Sí, en Navarra **las listas de contratación están supeditadas a los concursos-oposición**.

Resulta además que durante muchos años el Departamento de Educación de Navarra ha convocado, en los sucesivos concursos-oposición, muchas menos plazas de las necesarias, manteniendo así a numerosas personas aprobadas como **eternas interinas**. Siendo el porcentaje de **interinidad en Navarra vergonzante**, el departamento se ha visto forzado desde Europa a poner en marcha un proceso de estabilización. Pero, ¡oh sorpresa!, la **maniobra de estabilización** que Navarra ha llevado a cabo ha resultado claramente insuficiente. La realidad es que se está obligando al profesorado a presentarse a todos los concursos de oposición en los que sale su especialidad, pugnando en muchos casos por una única plaza.

Existe además una Ley Foral aprobada por el propio ejecutivo, que **impide crear listas subsidiarias**. Es decir, la nota final que un/una opositor/a obtenga tras las oposiciones de estabilización (u oposiciones "blandas", como también son conocidas) se barema y pasa a ser parte de las listas de contratación ya existentes. Teniendo en cuenta que en las oposiciones de estabilización se reduce el número de pruebas y no son eliminatorias, da como resultado una situación de desigualdad hacia las personas que han tenido que hacer las oposiciones convencionales (oposiciones de reposición).

Nos encontramos además con **otra "estratagema"** del Departamento. La creación de nuevas **listas de contratación con perfil lingüístico**: Las listas PAI, PAF, PALE. Estas plazas con perfil lingüístico generan un grupo de profesorado Foral propio, no estatal, de trabajadores y trabajadoras que no pueden acceder a otras comunidades, ni habilitarse en otra especialidad. Se crea por tanto un pseudocuerpo foral "estanco", de trabajadores que no son del estado, y que por tanto no podrán participar en los concursos-oposición estatales ni migrar a otras listas de contratación para las que estén habilitados/as.

STEILAS viene reclamando desde hace muchos años que lo idóneo sería la creación de una lista única por especialidad donde cada integrante aporte sus habilitaciones, méritos, menciones y perfiles lingüísticos. El Departamento en cambio ha mostrado siempre obstinación por mantener la **lista de euskera y de castellano separadas**, por lo que ahora, con la llegada de estos perfiles lingüísticos en lengua extranjera (PAI, PAF y PALE) que también pueden ser en euskera o castellano, **el número de listas se multiplica**. Todo vale cuando el objetivo es ponerle freno al modelo D.

Teniendo todo esto en cuenta, he aquí algunos de los problemas con los que nos encontramos:

Empeoramiento de la estabilidad de los centros:

Como decíamos, son convocadas un exiguo número de plazas en la mayoría de especialidades (¡en muchas de ellas una única plaza!). Esto provoca un **aumento de número de bajas** debido a la carga laboral y el estrés de preparar las oposiciones, así como el aumento de solicitudes de reparto de empleo y la dificultad de cubrir muchas vacantes. Es recurrente que en los centros haya **dificultades para cubrir sustituciones**.

Maltrato al personal interino: El/la opositor/a se encuentra obligado a presentarse si quiere mantenerse en las listas de contratación. Esto provoca, como ya hemos dicho, un nivel alto de **ansiedad y estrés** y condiciona la vida de muchas personas.

Aumento de problemas logísticos para realizar las oposiciones: Para llevar a cabo estas macro-oposiciones, en las que hay pocas plazas pero muchas especialidades (y más si tenemos en cuenta los perfiles lingüísticos), nos encontramos con la necesidad de muchos **tribunales**, una complicada gestión de horarios, días y espacios, y muchos pagos para la inscripción (a 42 € la participación, hagan el cálculo).

Es imprescindible un cambio de rumbo en la Educación Pública Navarra. Un gobierno que se autodenomina progresista no puede seguir con estas políticas de menosprecio al profesorado.



FAQ

No te quedes con la duda

¿Cómo quedarán las listas de contratación tras estas próximas oposiciones?

Se modificarán las actuales listas y se crearán nuevas con Perfil en Lengua Extranjera (PLE).

¿Y qué pasa entonces con la lista preferente?

Las personas que aprueben estas oposiciones de estabilización y se queden sin plaza entrarán a la lista preferente junto con las que ya estaban.

¿Y qué ocurre si saco peor nota de la que ya tenía en estas oposiciones?

Se mantiene de oficio la mejor nota que hayas obtenido en uno de los últimos tres procesos de oposición que haya habido en tu especialidad y cuerpo.

¿Si no me presento, me sacan de la lista en la que estaba?

No presentarse es, a efectos prácticos, como no haberse inscrito en el proceso de oposición. Pero en todo caso, se tendrá en cuenta la mejor nota obtenida en una de las tres últimas convocatorias. En caso de no haberse presentado nunca, es indispensable haber conseguido una vacante o sustitución en esa especialidad durante el presente curso. Eso sí, en este caso, no se hace una rebaremación, y por lo tanto, se continua con 0 puntos en las listas.

Pero no he podido estudiar, no creo que apruebe. ¿Me debería presentar?

En caso de obtener una nota positiva, por encima de 0, se procede a baremar y se tienen en cuenta los méritos, obteniendo una puntuación. En todo caso, para obtener un puesto en las listas también se tendrá en cuenta la mejor nota obtenida en una de las tres últimas convocatorias.

El mismo día a la misma hora esta convocada más de una especialidad a la que me inscribí. ¿Qué pasará con la especialidad(es) a la(s) que no me presente?

En este caso, siempre y cuando te hayas presentado a otra especialidad ese mismo día, sí que se bareman los méritos (experiencia) porque se considera hay imposibilidad para presentarse. Además, se tendrá en cuenta la mejor nota final obtenida en una de las tres últimas convocatorias de esa especialidad. (info por contrastar con el DPTO). ■



Kontratazio zerrenden kudeaketa egokia egitea funtsezkoa da hezkuntza sistema publiko osasuntsu bat izateko eta behar bezala funtzionatu dezan. Baina Nafarroako interinitate tasa altua, porrot egiten ari den egonkortze prozesuak eta kontratazio zerrenden eta oposizioen arteko lotura eta menpekotasuna, gero eta estres eta karga handiagoa sortzen ari da, bai irakasleongan zein ikastetxeetan. Artikulu honetan, iritsi garen egoera honen jatorria azaltzen saiatuko gara, eta gainera, zerrenden kudeaketa eta oposizioa prozesua dela eta jasotzen ditugun hainbat galdera erantzungo ditugu.

Oposizio sistema honek gaixotzen gaitu

Badirudi, Hezkuntza Departamentuko buruek hala adierazita, 2024ko urtarrilean irakasleen baja kopurua 1.600ekoa izan zela. Kontratatuen artean, % 22 egon zen bajan hilabete hartan. Inoizko kopururik altuena omen da eta zifra kezkarriak dira, inondik inora ere.

2024a oposizio deialdi ezberdinen urtea izango da Hezkuntzan. Honek irakasle kopuru handi bati eragingo dio, lanari eta ikasketei aldi berean ekin beharko baitie. Departamentuak berriz, baja kopuru altu honen aurrean, oraindik ere, ez du ikusi oposizioak prestatzeak osasunean dakartzan ondorio negatiboen inguruan hausnartzeko gunerik. Antza, irakurketa hau ez da haien interesekoa.

Irakasleok badakigu lanean ari garen bitartean oposizioak prestatzea ez dela erronka erraza izaten. Esperientzia badugu, bi urtetik behin egin behar izaten baitiegu aurre halako egoerei, non lanak eta ikasketak exigentzia maila altua eskatzen dizkiguten.

Lanaldi osoan zein murriztuan aritzeak eta oposizioetarako ikasteak, estresaren eta antsietatearen muturreko mailak sor ditzake. Suminkortasuna, umore-aldaketak, depresioa... izaten dira tentsio konstantean egoteak osasun mentalean dituen eragin nagusiak.

Lanean eta ikasten batera aritzeak izugarriko presioa eragiten du, bai eguneroko lana aurrera ateratzeko eta baita oposizioek dakarten lehia-gatik ere. Ekintza hauek eskatzen duten denbora eta energiak lan-errendimenduan eragin zuzena dute, produktibitatea eta kalitatea nabarmen jaitziz. Neke fisiko eta mentala areagotzen dira eta atsedean egokirik ez izateak neke kronikoa ere ekar dezake.

Lanaren eta ikasketen eskaeren ondorioz denbora liberrik ez izateak zaildu egiten ditu lanaren, ikasketen eta norberaren denboraren arteko oreka osasungarria mantentzea. Isolamendu soziala ere

ematen da, lagunekin eta senideekin interakziorik ez izateak eraginak baititu osasun mentalean eta emozionalean.

Horrek harreman pertsonalen, aisiaren eta nork bere burua zaintzeko jardueren utzikeria ekar ditzake.

Utzikeria honek, eta, batez ere, ikasketek dakarten sedentarismoak, eragin negatibo zuzenak dituzte osasun fisikoan ere: kirola egiteko denbora falta, eserita hainbeste ordu pasatzearen ondorio fisikoak, antsietateak elikaduran duen eragina...

Guzti hau ekiditeko formula kontratazio zerrenden kudeaketaren araudia aldatzea izango litzateke. **STEILAS**ek beti kritikatu izan ditu araudi honek dakartzan albo kalteak. Izan ere, oposizioak eta kontratazio zerrendak zuzenean lotzen diren heinean, oposizio prozesua ez da funtzionario bilakatzeko prozesu soil bat, baizik eta interino gisa lanean jarraitzeko beharrezkoa den zeregin bat. Lotura hori desagertuko balitz, norbanakoaren aukera izango litzateke funtzionario bilakatze-ko prozesua hastea. Modu honetan, ez litzateke bakoitzaren bizitza bi urtetik behin hankaz gora jartzeko arriskurik egonen, zerrendetan duten posizioa mantenduz.

Eskola baten oinarria irakasleak diren heinean, jakinda hauek sostengatzen dutela eguneroko martxa, Hezkuntza Departamentuaren lehentasunezko helburua izan beharko litzateke bertako langileen ongizatea. Irakasleen ongizate honek bermatuko baitu kalitatezko hezkuntza eta ikastetxe baten benetako osasuna. ■



Parece ser que en el mes de enero había 1.600 bajas en la educación pública. Entre los/as interinos/as, el 22% estuvo de baja ese mes. Son números preocupantes, pero el Departamento, ante este elevado número de bajas, aún no ve la necesidad de reflexionar sobre el sistema de oposiciones que tenemos en Navarra. Este 2024 será el año de varias convocatorias de oposiciones, el cual afectará a un número importante de profesores y profesoras. Trabajar y estudiar al mismo tiempo, además de atender a la familia u otras necesidades, no suele ser una tarea fácil. Y menos, si se enfrenta a esta situación cada dos años, donde la posición en lista del profesorado interino depende de un duro proceso de selección. Este proceso genera niveles extremos de estrés y ansiedad, genera una enorme presión, tensión constante y cansancio físico y mental. La fórmula para terminar con todo esto, sería modificar la normativa de gestión de listas de contratación. **STEILAS** siempre ha criticado los daños colaterales que supone esta normativa. Porque en la medida en que se vinculan directamente las oposiciones y las listas de contratación, el proceso de oposición no es un simple proceso de funcionarización, sino una tarea necesaria para seguir trabajando como interinos. Ya es hora de que el Departamento de Educación priorice el bienestar de sus trabajadores y separe el proceso de oposición de la lista de contratación. Pues el bienestar del profesorado es lo que va a garantizar una educación de calidad y la verdadera salud de un centro.



Hezkuntza publikoko irakasleak:

MAHAI NEGOZIATZAILEA ETA ADINAGATIKO MURRIZKETAK

Lehen bidegabekeria irakasle interinoekikoa da. Ez zaie inoiz baimendu interinoei murrizketa eskatu dezaten. Iazkoan ere berdin jokatu zuen administrazioak eta **STEILAS**ek bide judizialera jo zuen gai honengatik; epaileen ebazpenaren zain gaude. Esperoan gauden honetan Arartekoak bere iritzia eman du eta **STEILAS**ekin ados dago. Eta hori gutxi ez, lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen sektorean epaileak arrazoi eman digu eta interinoei azken sektore horretan **adinagatiko herena murrizteko aukera** eman die.

STEILASek mahai-negoziatzaileetan, behin eta berriz eskatu du herenaren murrizketetan langileari ez ipintzeko ardurarik, eta era berean, langileak ez duela zertan eskolan bertan derrigorrez igaro behar murriztutako denbora hori. Administrazioak entzungor egin du eta urtez urte erantzukizun handiagoak ematen dizkiete adineko langileei heren hori betetzeko. Aurtengoan Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketak zuzentzera bidaltzeko aukera zabaldu dute. Irakastorduak murrizteko deialdiaren helburua **adineko irakasleon lan karga** arintzea bada, ze zentzu du horrek? Argi ikusi dezakegu Hezkuntza Sailak ez duela oro har langileon lan-karga arintzeko asmorik.

Deialdian era berean zehaztu dute ordezkorik lortu ezean, ezingo duela murrizketa honetaz gozatu langileak. Espezialitate batzuetan **ordezkoa lortzea lan nekeza da**. Honen aurrean, aurreikus daiteke espezialitate batzuetan langile askok trabak izan ditzaketela herena murrizteko, zerrendetan ez baitago ordezko askorik. Horrek talka nabarmena sortzen du langileak herena murrizteko duen eskubidearen eta ikasleek hezkuntza jasotzeko duten eskubidearen artean; administrazioak du korapiloa askatzeko ardura, noski. Gainera badakigu heren bateko lanaldiek lanpostu prekarioak sortzen dituztela. Horregatik, **gure aldarrikapena izan da murrizketak gutxienez lanaldi erdikoak izatea ordezkoen lanpostuak duintzeko**.

Aurtengo deialdian larria den beste puntua **murrizketaren iraupena** da. Oraingoan murrizketaren ordezkapena ekainaren 30ean bukatuko dela zehazten da, egun lektiboekin batera; hortaz, ordezkoaren kontratuak ez du iraungo abuztuaren 31ra arte.



STEILASek adineko langileen baldintzak izan ditu lehen lerroko aldarrikapen Hezkuntza Sailarekin izandako negoziatioetan. **Gure lehen aldarrria 60 urte**rekin jubilatu ahal izatea izan da, eta hortik abiatuta ondokoak izan ditugu negoziaketarako mamia: **murrizketak gutxienez lanaldi erdikoak izatea, 60 urtetik aurrera urtero izatea lan-karga arintzeko aukera, 60 urtetik jubilazio bitarterako murrizketa oro metatzea** eta hala 2 urte lehenago erretiro hartu ahal izatea... Baina Hezkuntza Sailak ez du prestutasunik izan honetarako guztirako. Negozioetan larria izan bada Hezkuntza Sailaren prestutasun eza, hori gutxi ez eta bere aldartea gure lan-baldintzetan atzerapausoak ematea da. Hezkuntza Sailaren asmoa, beraz, gure baldintzak okertzea da, eta hemen azaldutakoa horren erakusgai eta lagina. ■

DENONTZAKO JUBILAZIO DUINA ORAIN!



Zaintza lanen egunerokoa

2023. urtea zaintzaren urtea izan da zalantzarik gabe. Zaintzaren gaia mahaigaineratzeko urtea, honen inguruko hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko urtea eta zaintzak dituen gabeziez ohartzeko urtea. Baina, zeri buruz ari gara zaintzaren inguruan ari garenean?



"Pipipipi! Pipipipi!" Alarma? ja? Ez da posible! Leher eginda nago... Agian gaizki jarri nuen ordua? Ah, ba ez, goizeko 6:00ak dira, jaiki beharra dut. Buuuf! ez dut batere deskantsatu bart gauean, asko jota bi ordu segidan egin ditut lo, haurra etengabe esnatu da eta!

Benga Miren, animo, indarra atera ahal duzun tokitik eta gora! Ordubete baino gutxiago duzu dutxatu, gosalduta eta lanerako gauzak prestatzeko eta gero umearena antolatu dena prest egon dadin bera esnatzerako. Behin umea esnatuta zaila izaten da lanak aurreratzea...

Ummm... kafearen usain goxoa. Eskerrak kafetera martxan jarri dudana dutxan sartu aurretik, bestela ez nuke denborarik izango. Irratia piztu eta albigetia entzuten dudana bitartean gosalduta dut, 10 minututxo hauek "nire momentutxo" da. Hori baino ez dut niretzat egun osoan.

Agenda aipatzen ari dira, ea zeozer interesgarria dagoen. Hara! Ostiralean antzerkia dago 19:00tan, joango al naiz? Kaka zaharra! Ez nuen gogoratzen asteburu honetan ama zaintzea tokatzen zaidala. Jackeline astelehenetik ostiralera egoten da amaren etxean, baina berak ere deskantsatzeko beharra du eta asteburutan txandaka ibiltzen gara anai-arrebok. Dena den, anaiek haien txanda baino ez dute betetzen, amari goizetan eta gauetan bisitatxoa egitea soilik nire ardura dela ematen du. Haiek ni bezain ongi dakite Jackelinek 8.30etatik 19.30etara lan egiten duela eta amak gehiago behar duela. 1000 euroengatik ezin diogu gehiago exijitu gaixoari; XXI. mendeko esklabotza da zaintzarena, egoiliarrena bereziki. Ze miseria!

Haien herrialdetik alde egin, familia, ingurua, dena atzean utzi... honetarako! Ez dago esku-biderik! Baina 3 anai-arreben artean ezin dugu gehiago ordaindu, kontratua egin diogu eta horrek ere gastua suposatzen du...

Ea urtea bukatu aurretik, behingoz, erresidentziaren batean plaza lortzerik dugun. Duela 3 urte egin genuen eskaera eta oraindik ez dugu erantzunik jaso... hau onartezina da!

Erresidentzia publikoen sarea zabaldu beharko lukete ja! Nafarroan dauden 71 erresidentziatik 2 baino ez dira publikoak, lotsagarria da! Eta pribatuetan... gure soldatekin ezin dugu dirutza hori asumitu, 4000€ hilean? erotuta daude!!! Loteria tokatzen ez bazaigu jai dugu! Ea Jackyk urte batzuk gurekin ematen dituen, baina ez da erraza izango ikusita ze baldintzatan ari den...

"Buuua, buuua!!" Ai, umea esnatu da eta bere gosaria oraindik prestatu gabe dago. Arropa azkar prestatu eta egun on esatera joango naiz. Gaixoa, gau txarra pasa eta orain 7:00etarako jaiki behar du haur eskolara joateko. Azkar prestatu, gosalduta eta amona agurtzera pasako gara Jacky etorri aurretik ongi dagoela ziurtatzeko. Eskerrak behintzat ondoan bizi den eta 15 minutuko kontua den. 8:00etarako beranduenez kotxean egon behar dugu haur eskolara joan eta ondoren ni lanera garaiz iristeko. Ia 20 minutu kotxez gertuen dagoen haur eskolara iristeko eta gainera sare publikoan plazarik ez! Haur eskolekin eta adinekoen erresidentziekin gauza bera gertatzen da, plaza eskaintza izugarri eskasa da eta azkenean pribaturara joan behar izugarritzeko dirutza ordainduta; gutxi batzuen negozio bihurtu dira zaintza-lanak. Zerbitzu hauek publikoak, doakoak eta unibertsalak izan beharko lirateke. Beti berdin... ■



Pornoa eta pantailak

EGUNEROKOAN HIPERKONTROLATUTA DITUGU HAURRAK, ONLINE MUNDUAN ABANDONATUTA

Pornografía hezkuntzan
La Pornografía en Educación

Maiatzak 9
Zuzenbide Fakultatea
UPV/EHU Donostia

9 de Mayo
Facultad de Derecho
UPV/EHU Donostia

Sexofobia

Sexu-hezkuntza feminista
Educación sexual feminista

Proposamen didaktikoak
Propuestas didácticas

Unidade didaktikoa
ARMAIRUTIK PLAZARA!

Unidad didáctica
ARMAIRUTIK PLAZARA!

Alarmismoa

steilas

HIRUKI LARROXA

STEILAS LGTBQ+ taldea

Save the Children erakundeak argitaratutako "Silenciadas" txostenaren harira **nerabeek** eduki sexuarekin duten lehen hartu-emanak 12 urterekin izaten da eta 10etik 7k pornografía kontsumitzen du. Horrez gain, 13 eta 17 adin bitartekoek beraien sexu esperientziak dituztenean, **pornografía izaten dute inspirazio iturri** eta gailentzen den porno mota heterosexuala, estereotipatua eta botere-harreman sexistak erreproduzitzen dituenak da.

Pantailen eta mugikorren erabileraren gaia hezkuntza-komunitatean puri-purian dagoen honetan, belaunaldi gazteenek eta internetera sarrera oso eskura dute. Baina prest d(g)aude modu askean eta kritikoa hauek erabiltzeko? Horretarako, eskolan guzti honen inguruko **formazioa** ematea, bai haurrei eta baita hezkuntza komunitate osoari ezinbestekoa dela uste dugu, honetarako baliabideak jarritz. Baina ezin da soilik hezkuntza-komunitatearen gain geratu lanketa hori. Gizartera ere zabaldu beharreko gaia da eta honi heltzea ezinbestekoa da. Fokua ezin da gazteriarengan ezarri, beraiek ere gizartearen parte diren neurrian, **gizarte mailako** kontu bat baita.

Haurrak eta nerabeak **oso babestuta** ditugu egunerokoan. Eremu guztietan dago helduon presentzia eta gure eskuartzeekin haien sufri-mendua ekiditzen saiatzen gara. Ez dezatela sufritu, ez daitezela frustratu, ez dezateka minik hartu. Hori horrela, hanka sartzeko eta akatsetatik ikasteko aukera gutxi uzten diegu. Offlineko bizitza "erreal" espazio egokiena da onlineko munduan sartu ahal izateko. Guraso eta hezitzaileen "superbabes" nahia go-raipatzekoa izan daiteke, baina **hautzarroan arrisku txikiak kudeatzen ikastea** beharrezkoa dazenbait tresna eskuratzeko, hala nola, gaitasun kritikoa, munduaren ezaguera, harreman sozialen kudeaketa, eremu pribatu eta publikoaren desberdintasuna, gerora gero helduaroan arrisku handiagoen aurrean nola jardun jakiteko. Gehiegizko babesa ematen diegu eguneroko bizitzan eta abandonatuta uzten ditugu sareetan.





Honen aurrean, hezkuntza afektibo-sexuala eta balore feministak txikitatik lantzea ezinbestekoa da, bai etxean bai eskolan. Abiapuntua **norberaren autoezagutzaren** lanketa izango da, horrela geure desioen, beharren eta mugen kontzientzia hartzeko. Honekin lotuta plazera eta onespeneren inguruko hausnarketak datoz, eta baita **pribatuaren eta publikoaren arteko ezberdintasunak** lantzea ere. Komunikazioa dugu tresna eraginkorrena, konfidantza eta espazio seguruak eskainiz, beldur eta alarmismoak alde batera utziz.

Badira ikastetxeetan martxan jarri diren **hezkidetza proiektuak**. Besteak beste oihartzun handia jaso zuen Nafarroako "SKOLAE programak", UNESCOk goraiatu, baina eskuin muturrak bere diskurtsoarekin zikindu zuena. Antzerako adibide bat dugu "Ekimena lehiaketa" ere, Gasteizko Udaleko Gazteria Sailak antolatu zuena. Lehiaketa honen ostean Porno Eskola unitate didaktikoa hautatua izan zen eta Itunpeko ikastetxe erlijiosoko Guraso Elkarte baten presioei men eginez kendu zuten. Azkenik, 2019-2023 legegintzaldian, EAEko hezkuntza sailaren II. Hezkidetza-plana ere martxan jarri zen.

STEILAS sindikatuan gaiak arduratzen gaitu eta horregatik LGTBQ+ taldeak formakuntza antolatu du "Pornografia hezkuntzan" izenburupean, Hiruki Larroxako kideen eskutik (<https://hirukilarroxa.eus/>). Hau maiatzaren 9an izango da Donostiako EHUko Zuzenbide Fakultatean, 10:00etatik 14:00etara.

Formakuntza honetan, alde batetik "Armairutik Plazara" unitate didaktikoak aurkeztuko dizkigute eta ondoren "Pornografia Hezkuntzan" esku-hartze mamitsua egingo digute irakasleok zenbait gako garrantzitsu kontutan har ditzagun. Azkenik, **STEILAS**eko LGTBQ+ taldeko kideok sindikatuak sexualitate eta hezkidetzaren inguruan argitaratutako material bilduma aurkeztuko dugu. ■

El porno a edades tempranas, el grooming, la violencia, el uso adictivo de las pantallas... son temas que afectan a la infancia y adolescencia y que nos preocupan a familias y educadores/as. Hemos aprendido protegerlos en el día a día, en la vida offline. Que no sufran se ha vuelto nuestro objetivo. Pero por muy loable que este parezca, la realidad es que están sobreprotegidos/as y controlados/as. En el mundo online en cambio, no tenemos ni idea de qué ocurre, qué ven y qué hacen. Niños y niñas que no ha practicado con la asunción y valoración de riesgos, no han entrenado la importancia de diferenciar el ámbito de los público y lo privado, se encuentra huérfanos ante la pantalla que no duda en engullirlos. Por ello, toca reflexionar sobre el acompañamiento que tenemos que dar a nuestros menores y sobre las herramientas que van a necesitar. Regulemos la protección que les damos, tanto en la vida "real" como en la digital. **STEILAS** ha organizado una formación sobre "porno y educación" en la que reflexionaremos de la mano de "Hiruki Larroxa", en el acompañamiento que merece la infancia y adolescencia más allá de alarmismos.

Aurten bi proiektu berri martxan jarri ditugu, eta Saharako eskolekin bat egiten duen kanpaina bat ere jarri dugu abian.

“Zenbaitetan, hirietako adreiluzko hormetan, landare txikiek loreak ateratzea lortzen dute, edozein zirrikitutun pilatutako lur ale bakanei atxikita.”

Munduko botere nagusiek, ekonomiaren geopolitikari erantzunez, hainbat herrialde zapaldu, ustiatu eta alboratzen dituzte. Baina egoera zailenetan ere, hainbat herriladeetako komunitateak antolatzen dira eta sareak sortu eta haien bizitzak hobetzeko ekimenak sortzen dituzte, adreiluen artean landare txikiek nola.

Eilastasuna funtsa nazioarteko elkartasunean oinarritzen da, eta helburua herrialde hauek aurrera atera nahi dituzten, eta hezkuntzarekin harremana duten, proiektu esanguratsuen bidelagun izatean datza. Proiektu bakoizarekin dugun hartu eman hau 7 urte iraun dezake gehienez. 2024. urtean **bi proiektu berriren** bidelagun izateko aukera genuenez, martxoaren 14an ospatu genuen **ezhoiko asanbladan** proiektu berrien eskaerak aztertu genituen.

Alde batetik, **El Salvadorreko** landa-komunitateko ikasle gazteak laguntzeko helburua duen **“Unibertsitate-Etxea”** proiektua dugu. CRIPDES elkarteak eramaten du ekimen hau aurrera. El Salvadorren goi-mailako hezkuntza formala hirigune nagusietan zentralizatuta dago eta kostu handia du landa-eremuko baldintza ekonomiko eskasak dituzten familientzat. Egoera horrek karrera akademikoa lortu nahi duten gazteei eragiten die: unibertsitateko kuotak, bidaiak, material didaktikoak eta egoitza ordaintzeko zailtasunak baitituzte. Proiektu honekin komunitate desberdinetako gazteei aukera ematen zaie goi eta erdi mailako ikasketak egiteko eta beraien formazioa osatzeko. Honekin landa-komunitate osoak onura argiak jasotzen ditu, gazte horiek beraien lanbideetan jarraituko dezaketelako komunitatearen alde lan eginez.

Bestetik, **Peruko** proiektua dago, **Chiclayo eta Ferreñafeko** emakumeen **Biobaratze komunitarioen sarea** indartzea helburu duena. Abandonatuta zeuden erakargarritasun gutxiko eremuak garbitu, eta biobaratzeak sortu dituzte. Elikadura-subiranotasunari eutsi nahi diote, baliabideak handitzeko eta familiak elikagai osasuntsuekin elikatzeko. Proiektu hau emakume talde batek eramanen du aurrera, eta elikagai-justiziaren aldeko apustu gisa ulertu behar da, baita bertako komunitateko emakumeen ahalduntzerako estrategia bezala.

Azkenik, Saharekin bat egiten duen kanpaina aurkeztu zen asanblada honetan. **Saharar Hezkuntzako Sindikatuarekin (UTEFS) elkartasun bide bat zabaltzen ari gara**, eta horretarako **gure afiliatuen partaidetzari** dei egin diogu.

Ekimen honek Euskal Herriko irakasleak Sahara errefuxiatuen kanpamenduetako irakasleekin harremanetan jartzea du helburu, eta ildo berean, hemengo ikasleak hango ikasleekin, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein Batxilergoan. Modu honetan, haien esperientziaz hitz egin eta materialak partekatu ahal izango ditugu. Horrez gain, ikasleak elkarrekin harremanetan jartzea ere garrantzitsua da, elkarren ezagutzak irekitzen baitizkio bideak lankidetzari. Proiektua aurrera eramateko komunikazio bide ezberdinak erabiliko dira; bai internet, bai korreo arrunta. Saharar irakasleen artean proposamena zabaldu dute jadanik eta jasotako erantzuna oso baikorra izan da.

2024-2025 ikasturtean elkartasun bide honetan parte hartu nahiko bazenu, jarri zaitez **STEILAS** sindikatuarekin harremanetan, telefonoz edo emailez. Proiektuari hasiera emateko, **bilera bat antolatuko dugu apirila-maiatza zehar**, egoitzetan eta telematikoki. Bertan UTEFS-eko arduradun bat egongo da eta helburu eta ekintzak zehaztuko ditugu denon artean, baita sortzen diren zalantzak argitu ere.

Loratzen ari diren proiektu hauei babesa eta indarra emango diegu. ■

Animatu zaitez parte hartzera!

Proiektu berriak



Gure eskola eta Saharakoak elkar ezagutzen

El fondo Eilastasuna se basa en la solidaridad internacional. Nuestro objetivo es ser compañeros de viaje de proyectos internacionales que tienen relación con la educación y que necesitan un empujón para salir adelante. Este año 2024 ha surgido la oportunidad de acompañar a dos nuevos proyectos. Uno en El Salvador, a través de la asociación CRIPDES, para impulsar el proyecto "Universidad-casa" de apoyo a estudiantes de formación superior. El segundo apoyará a las mujeres de Chiclayo y Ferreñafé en Perú, que han puesto en marcha Biohuertas para incidir en la educación y alimentación de las mujeres de la comunidad y sus familias. Por último, ponemos en marcha una campaña para conectar a profesorado y alumnado del Sahara y Euskal Herria. ¿Te animas a participar?

Sindicatos y YALA NAFARROA con PALESTINA lanzan una recogida de fondos en solidaridad con Gaza

Varios sindicatos y la organización YALA NAFARROA con PALESTINA hemos puesto en marcha una recogida de fondos para financiar proyectos en solidaridad con la Franja de Gaza. Se desarrolla en las instituciones, en diferentes empresas e incluso a nivel individual.

**YALA
NAFARROA
con PALESTINA**

Ante el genocidio que Israel viene cometiendo desde hace meses y con el objetivo de recoger fondos en solidaridad con Gaza, los sindicatos UGT, CCOO, LAB, Steilas, ESK, CGT y Solidari, junto a Yala Nafarroa con Palestina hemos puesto en marcha una campaña de recogida de fondos a diferentes niveles.

Dimos una rueda de prensa, en euskara y castellano, Ainara Huarte, de Steilas, Roberto Urabayen, de Solidari, y Odei Aranguren e Isabel Eiguren, de Yala Nafarroa con Palestina.

Se procedió a recoger fondos en decenas de empresas entre el 1 y el 11 de marzo «con dos propósitos claros». Por un lado, para apoyar al Centro Palestino de Derechos Humanos, a Al Haq y Al Mezan «para llevar a Benjamin Netanyahu ante los tribunales». Y, por otro, para destinar parte de la recogida a «proyectos de acción humanitaria en Gaza, que se realizará a través de la organización Mundubat y que irá destinado a Union of Agricultura Work Committees y Union of Palestinian Women Committees.

Los sindicatos que participan en la campaña animan «a toda la clase trabajadora a llevar a la práctica su solidaridad con el pueblo palestino, cada persona lo que pueda, una parte de su salario para hacer realidad esos dos objetivos».

Además, se colocarán urnas en Tuter, Lizarra, Tafalla, Zangoza, Elizondo, Otsagabia, Leitza, Altsasu e Iruñea para «llenar la cuenta de dinero solidario para el pueblo palestino».

Asimismo, «mandaremos un correo a toda nuestra afiliación para que se autoorganice y done directamente facilitando un número de cuenta y el bizum».

Todo ello con el objetivo de «recoger aportaciones económicas para dos proyectos palestinos que consideramos fundamentales», para una zona donde «el 5% de la población ya ha sido asesinada, herida o separada» y donde «la desnutrición infantil aguda en el norte ha experimentado un deterioro sin precedentes en todo el mundo». Porque «la solidaridad es la ternura entre los pueblos», han concluido. ■



Israelen okupazioaren bonbardaketak hasi zirenetik, 27.000 pertsona baino gehiago hil dira Palestinan, eta, zoritxarrez, egoera horrek ez du etenik. Hasieratik, **YALA NAFARROA PALESTINA** rekin dinamikaren helburua ahalik eta erantzun solidario bateratuena eta zeharkakoena ematea izan da.

PALESTINARI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO EKARPEN EKONOMIKOAREN ESKAERA



Helburu hori betetzat jo dezakegu sindikatuen, alderdien, GKEen eta milaka pertsonaren babesu lortu eta gero. Palestinan bizi dugun egoera larriaren aurrean, bat egin dugu GERNIKA PALESTINA plataforma abian jarritako "elkartasun aktiboa" dinamikarekin. Dinamika horren bidez, sindikatuei dei egiten diegu jarrera pro aktiboa har dezaten, **bi helburu** argi hauekin:

1. Gazako herritarren artean **gizarte-sarea berreraikitze**ko proiektu humanitarioak bultzatzea, 1998. urtetik Palestinan lan egiten duen MUNDUBAT GKEaren bitartez (www.mundubat.org)
2. Diruz laguntzea legelari palestinarren ekimena, Benjamin Netanyahu Nazioarteko Zigor Gorteko fiskal Mr. Khan jaunaren aurrera eramateko, Israelgo agintari militarrek eta zibilek Gazaren aurkako bereizketarik gabeko eraso hasi zutenetik egin dituzten gerra- eta gizarte irainduaren aurkako krimenak ikertzeko.

YALA NAFARROA con PALESTINA egindako eskaera:

Sartu zure ekarpena kontu korrante honetan: ES363035 0083 28 0830140037

BIZUM metodoaren bidez ekarpena emateko aukera ere eskaintzen dugu.

DONAR atala sartu, bilatu Mundubat edo 08837 kodea. ■

Merezimenduen dekretuak euskara «ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren azpitik» utziko duela salatu genuen 60tik gora eragilek

Euskalgintzaren Kontseiluak deituta, agerraldia egin genuen Iruñean, Nafarroako Gobernuari eskatzeko «dekretua albora dezala» eta beste bat onar dezala «euskara gutxietsiko ez duena».

Nafarroako administraziorako zenbait lan deialditan, euskaraz jakiteak ez du puntu bakar bat ere ematen. Bai, ordea, ingelesak, frantsesak edo alemanak. Nafarroako Gobernuak, ordea, anomalia hori konpondu ez eta, are, betikotzeko asmoa du, aurki onartzekoa baita Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzeko Foru Dekretua. Bost urteko bidea egin du dekretuaren zirriborroak, eta hasieratik beretik, aurka izan ditu euskalgintzako eragile guztiak. Horren erakusgarri izan zen agerraldi hau ere.

Eragile sozialak, osasun arloko langileak eta pertsona ezagunak batu ginen Kontseiluaren deialdira, eta kritikatu genuen merezimenduen dekretuak debekatu eginen duela «ehunka lanpostutan euskararen ezagutza meritu gisa baloratua izatea».

San Frantzisko eskolan bildu ginen eragileok uste dugu gobernu «garaiz» dabilela oraindik, beste bide bat hartzeko eta «Korrikan islatu zen gehiengo horri kasu egiteko». Zehazki, Nafarroako Gobernuari merezimenduen dekretua alboratzeko eta beste dekretu baten bidez «euskara eta euskaldunen komunitatea aintzat hartuko dituen politika publikoak egiteko», eskatu genion. ■



HL

Hitz eta Lapitz



Ahotsa.info
@AhotsaInfo

"2 urteko gelak haur eskoletan" aldarrikatu du 0-3 plataformak Nafarroako Parlamentuaren aurrean.



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

"Udaberrian ere kantatuko dugu zozook. Bizi gareino kantatuko dugu; bizi deino, herri honek euskara dantzatuko du. Esna dadila piztia, zeren kea usaindu duelako da, eta guk badakigu sua egiten.

Biba #Korrika, harro Herrial!

Baionako kaleetatik ere eraman dugu lekukoak! 🇪🇺



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Kontseilu Nazionala egin dugu gaur Bilbon. @emagin_emaginlekin landutako Bizigarritasun Plan Feminista aurkeztu eta onartzeaz gain, Amelia Barquin-en hitzaldia jaso eta gogoeta egiteko aukera izan dugu: "Etorकिनen seme-alabak, euskara, eskola".



STEILAS sindikatua reposteo

IruñekoEuskalgintza
@IruñekoEuskalg

Iruñeko haur eskolak euskaraz eskatzen jarraituko dugu!

Maiatzak 16

18:00

Sarasate pasealekukit

Bertan espero zaituztegu 🍌

HAUR ESKOLAK EUSKARAZ eman haizea euskarari!



MANIFESTAZIOA

Maiatzak 16 · 18:00
Sarasate · Iruñea



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Nafarroako intersindikalak Hezkuntza Departamentuari eskatu diogu irakasleen lan baldintzak eta hezkuntza kalitatea hobetzeko negoziazioa has dezala. Urtarrilaz geroztik Mahai Sektorialaz ez dugu berririk, negoziatzeko deia behin ta berriz luzatu diegun arren. **NEGOZIAZIOA ORAIN!!**



STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren jarrera ikusita, sindikatuk mobilizazio dinamika bati hasiera emango diogu. Hobekuntzarik eman ezean datorren ikasturte hasieran grebak deituko ditugu.

Nekatuta gaude ikusezinak izateaz: irakasleen ordua iritsi da!



Mobilizazio dinamika Nafarroan: Orain irakasleak, gure txanda da!

STEILAS sindikatua
@STEILAS_

Asteburuan hainbat mobilizaziotan izan gara:


- Azpeitian: Lurraren defentsan, Euskal Herria bizirik! @EHBizirik_
- Iruñean: Bizitza duinen alde, alternatiba ekosozial justua! @EskubideenKarta
- Bilbon: Zainketa Itunari kontrakotasuna agertzeko, Denon Bizitzak Erdigunean @bizitzak



Julia Fernandez Zabaleta

Pastorala. Emakume aitzindariak

Zaldiko Maldikoren eskutik. Mikel Tabernak idatzia, Ihitz Iriart errejenta
Maiatzak 4, 17:00etan • Maiatzak 12, 11:00etan / San Frantzisko eskolako jolastokian
Sarrerak: Apirilaren 16tik goiti Karrikirin.



Julia Fernandez Zabaleta Iruñeko Dormitaleria karrikan jaio zen, 1898an. Nafarroako zona «erdaldundukoak» zituen gurasoak; Ziraukikoa ama, eta Mendigorrikoa aita. Ez zituen euskaraz esan lehenbiziko hitzak, baina sakon euskaldundu zen gazte zelarik. Iruñean bertan bere lehen ikasketak egin eta gero, San Jose plazan zegoen Irakasle Eskolan egin zituen maistra izateko ikasketak. Oso nota onekin bukatu zituen, eta, horren ondorioz, Iruñeko Udalak beka bat eman zion 1916an, Bartzelonan Maria Montessorirekin ikasteko. Han Italiako irakasle ospetsuaren pedagogia metodo berritzailea barneratu zuen, eta, etxera bueltatzean, oposizio baten bidez Udal Eskoletan plaza lortu, eta horietan metodo hori sartu zuen.

1921eko urtarrilaren 15ean, Iruñeko Maistren Eskolako Ikasle Ohien Elkartean parte hartu zuen: eskola hura emakumeen sustapen kulturala eta profesionala bultzatzeko giltza izan zen. ■

¿El final de las estaciones?

Razones para la rebelión de la ciencia y el decrecimiento

Juan Bordera, Antonio Turiel y Fernando Valladares
Revista Contexto, 2024

La historia no está escrita todavía, pero es un momento crucial marcado por las amenazas de los totalitarismos neoliberales de ultraderecha, de la guerra y el genocidio. Repensar la vía en común en estos tiempos extraños es posible, pero para ello es preciso mirar dónde estamos y obligarnos a redefinir las cuestiones más antiguas de la justicia social y de la política.


Este libro no hace una predicción agorera. Es un aviso rabioso y dolorido. Se tiñe del dolor y la rabia de quienes aman la vida y a la gente, de aquellos a quienes les importan todas las vidas y se resignan a descartaras. Del prólogo de Yayo Herrero. ■



Emari transfeministak haur hezkuntzan

Profesionala, pertsonala eta politikoa elkar gurutzatuz

Irati León Hernández • EHU argitalpenak, 2024



Ukaezina da gaur egun indar handia hartu dutela genero-ikuspuntuak eta feminismoek zenbait agertoki sozial eta instituzionaletan. Hala ere, horrek egindako ekarpenez gain, zenbait diskurtso eta egiteko modu errotzen hasi dira, eta, horrenbestez, askotariko kezka sortzen ari dira gaiari konplexutasunez begiratzen dioten esparruetatik. Horren aurrean, beharrezkoa da hezkuntza-komunitatetik hausnarketa kritiko bat egitea, eta askatzaileagoa izango den haurtzaroaren eta hezkuntza-sistemaren aldeko erronkan murgiltzea, neoliberalismoaren antipodetan.


Lan hau esparru horietako hainbat ahots jasotzeko ardura eta konpromisotik sortu da, haurtzaroaren eta sexu/genero-sistemaren harremanen baitan analisi bat eginez, ostean identitateari buruzko eztabaidetan zenbait argudio indartzeko eta transfeminismotik datozen eztabaida berriak mahai gainean jartzeko, egiteko profesional, pertsonal eta politikotik.

Ikerketa honek hiru kasu-azterketa jasotzen ditu. Lehenak eskolaren erradiografia bat egiten du, eta eskolako zenbait erronka jaso; bigarrenak identitatearen garapena aztertzen du, eta hirugarrenak eta azkenak, aurreko ikuspuntuaren elkarguneak bilatzen ditu, zenbait gako identifikatzeko.

Sinergiek agerian uzten dute ezinbestekoa dela proposamen integralak egitea, zeharkakoak, kokatuak eta komunitatearekin elkarlanean eraikiak, eredu neoliberaleri, neurgailu moralei eta (ber)binarizazioari adi egongo direnak. Horri erantzuteko, gure egiteko profesionalean zein pertsonalean (des)eraikuntza-proposamenak abiatzeko zenbait estrategia jasotzen dira, helduok sexualitatea, generoa eta identitatea (funtsean, harremanak sortzeko ereduak) ulertzeko ditugun arau zurrinak haurtzarora aplikatzeari uzteko. Beraz, lehen haurtzaroko proposamen pedagogikoak balioan jartzearen aldeko ikerketa-manifestu bat da honako liburu hau: zaintzaren balio pedagogikoa, pedagogia sortzaile eta askatzaileak bilatzen dituen eta epistemologia transfeministetatik jasotako emari pedagogikoa ulertzeko zenbait aukera adierazten dituen, paradigma anizkoitz, kritiko eta subertsibo batetik hurbiltzeko Haur Hezkuntzako etapara eta, oro har, bizitzara. ■

Nafarroako hezkuntza publikoko berriak jaso nahi badituzu,
GEHITU KANALERA!

Zabandu interesa izan dezaketen inguruko lagunen artean!



@STEILAS_NAFARROA

Si quieres recibir información sobre la educación pública navarra,
¡ÚNETE AL CANAL!

¡Difunde entre gente cercana a la que le pueda interesar!

https://t.me/STEILAS_Nafarroa



www.steilas.eus

Araba

Manuel Iradier 40 • 01005 **Gasteiz**
☎ 945 141 104 • araba@steilas.eus

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1. esk. • 48013 **Bilbo**
☎ 944 100 298 • bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa

Gaztela kalea 16-18, Behea • 20015 **Donostia**
☎ 943 466 000 • gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa

Joakin Beuntza 4-6, behea • 31014 **Iruñea**
☎ 948 212 355 • nafarroa@steilas.eus



Irakaskuntzako aldizkaria